

SORA FUNDAK



Gure ideia eguzkiaren bitartez kargatzen den bateria duen mobila kargatzeko balio duen funda bat da.

Idea hau oso jasangarria da, izan ere, ez da behar bateria hori kargatzeko kablerik. Horrez gain, prezio ona du eta kolore askotakoak daude. Mota, marka eta tamaina guztietako mobilentzat balio du funda honek.

Funda honekin, etxeko ekonomia hobetuko da, ez delako behar kablerik mobila kargatzeko, eguzkiaren izpiak baizik. Gainera, lehen bateriarik gabe gelditzen bazinen, honekin zure arazoak desagertuko dira. Orduan, bi abantaila nagusi dituela esan daiteke: alde batetik, etxeko energia ez da behar mobila kargatzeko, eta bestetik, edozein momentutan kargatu ahal izango da mobila eta ez zara bateriarik gabe geldituko edozein momentutan.

Fundak bi osagai nagusi ditu: bateria eta funda. Bateriarekin batera, plaka solarrak daude, eta hori da funtsezko osagaia funda hau desberdin egiteko.